


Behera egin du heriotza eragiten duten lan-istripuen kopuruak EAeko gazteen artean

EAeko 16 eta 34 urte bitarteko biztanleen artean heriotza dakarten lan-istripuen kopuruak behera egin du 2001etik 2010era, hain zuzen ere, 34 kasutik 6 kasura.

Apirilaren 28a **Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Munduko Eguna** dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) lan-istripuei buruzko zenbait datu eskainiko ditu jarraian, EAeko 16 eta 34 urte bitartekoei dagozkienak.

2010ean, orotara, 38.086 lan-istripu izan ziren EAEn. Horietatik 37.789 arinak izan ziren (%99), 250 larriak eta heriotza eragin zutenak 47. Banaketa hori berori aurki daiteke 16 eta 34 urte bitartekoen artean: 13.558 istripu arin (%99), 72 larri eta heriotza eragin zuten 6.

16 eta 34 urte bitartekoen artean, **heriotza eragin zuten lan-istripuek behera egin dute**: 2001ean gertatu ziren 34 kasuetatik 2010eko 6 kasuetara. Joan den urtean hildako guztiak gizonak izan ziren.




EAEn 2010ean gertatutako lan-istripuetatik %46 16 eta 34 urte bitartekoen artean jazo ziren (13.558 kasu), eta, horietatik, %75 26 eta 34 urte bitartekoen artean.

Jarduera-sektoreari dagokionez, 16 eta 34 urte bitartekoen lan-istripu motek poblazio orokorraren ereduak jarraitzen dituzte ere. Zerbitzu sektorean lan-istripuen %46 gertatzen dira, industrian %36 eta eraikuntzan %16.

Lan-istripuak gehienbat gizonzkoen artean gertatzen dira; izan ere, 2010ean gertatutako lan-istripuen %76 gizonek jasan zituzten. Horren arrazoia da gizonzkoen kopuru zabala dela industrian eta eraikuntzan, eta bertan gertatzen dira lan-istripuen erdia baino gehiago (%52).

Lurralde historikoetan banaketa proporzional logikoa ikusten da lan-istripu larriei dagokienez (11 Araban, 31 Bizkaian eta 24 Gipuzkoan), baina 2010ean heriotza eragin zuten lan-istripu guztiak Araba (3) eta Bizkaian (3) izan ziren.



Datuok [Osalan](#)-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak eman ditu, eta Gazteen Euskal Behatokiak landu. [Gazteen Euskal Behatokiaren Adierazleen Sistemari](#) kontsulta daitezke.